XEDATU DUT:

Amurrioko udal planeamenduaren ordezko arauetako SAPUR-1 sektoreko Hirigintza Intereseko Elkartea eratzeko espedientearen eduki formala eta izapidea onartzea, eta elkarte hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 15a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de constitución de la Agrupación de Interés Urbanístico del SAPUR-1 de Amurrio, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Amurrio, y ordenar su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 15 de mayo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**3674**

**415/2007 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa. Honen bidez, Apodakako 6. zenbakia duen Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Batzordea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzen da. Unitate hori Zigoitiko Udal Planeamenduaren Ordezko Arauetakoa da.**

Zigoitiko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2007ko apirilaren 27an sarrera izan zuen idazki baten bidez, Apodakako 6. zenbakia duen Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Batzordea eratzea onartzeko hartu zen erabakiaren berri eman zion sail honi, eta elkarte hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko eskatu zuen. Unitatea, bestalde, Zigoitiko Planeamenduaren Ordezko Arauetakoa da.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen forma eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen, eta elkartea erregistroan sartzeko proposamena egin.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Apodakako 6. zenbakia duen Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Batzordea eratzeko espedientearen eduki formala eta izapidea onartzea, eta elkarte hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko agintzea. Unitatea, bestalde, Zigoitiko Planeamenduaren Ordezko Arauetakoa da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 15a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**3674**

**ORDEN FORAL 415/2007, de 15 de mayo, de inscripción de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 6 de Apodaka, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zigoitia, en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.**

El Ayuntamiento de Zigoitia, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 27 de abril de 2007, remite a este Departamento Acuerdo aprobatorio de la Constitución de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 6 de Apodaka, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zigoitia, solicitando su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de Constitución de la Junta de Concertación de la Unidad de Ejecución nº 6 de Apodaka, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, y ordenar su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 15 de mayo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**3775**

**440/2007 FORU AGINDUA, maiatzaren 21ekoa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio, zenbait baldintzarekin, Zuiako udalerriko Ordezko Arauen berrikusketaren dokumentuari, udalerri horretako hiri lurzoruari dagokionez.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduaren bidez, honakoa onartu zen Zuiako udalerriko Ordezko Arauen berrikusketaren espedienteari dagokionez:

“Lehenengo.- Zuiako Planeamenduaren Ordezko Arauen Berrikusketaren behin betiko onarpena bertan behera uztea, akats hau zuzentzen ez den bitartean: espedientean agertzen den lurralde ereduaren beharrak asetzeko nahikoa izango den ur-hornidura bermatzea, zeren eta udalerriaz gaindiko interesak eragiten baititu; bestalde, espedientea Udalari itzultzea erabaki zen.

Bigarren.- Akats hori zuzentzea funtsezkoa da, eta horrek eragiten dituen aldaketak espedientea berriro jendaurrean jartzea dakarte beraiekin; beraz, Udalaren erabakia Foru Aldundiari jakinaraziko zaio, behin betiko onarpena eman diezaion.

Hirugarren.- Era berean, ebazpen honetan sailkapenei eta kalifikazioei buruz aipatzen diren aldaketez gain, honakoak ere sartu behar dira espedientean: Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak egindako txostenen alderdi lotesleak, Herrilan eta Garraio

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**3775**

**ORDEN FORAL 440/2007, de 21 de mayo, de aprobación definitiva con condiciones del documento de revisión de las Normas Subsidiarias del municipio de Zuia en lo referente al suelo urbano de dicho municipio.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, se acordó, en relación con el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia, lo siguiente:

“Primero.- Suspender la aprobación definitiva de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zuia, en tanto no se subsane la deficiencia consistente en garantizar el suministro de agua necesaria para la satisfacción de las necesidades del modelo territorial propuesto en los términos anteriormente expuestos, por afectar a intereses supramunicipales, y con devolución del expediente al Ayuntamiento.

Segundo.- La subsanación de la citada deficiencia posee el carácter de sustancial y la introducción de las modificaciones que conlleva su cumplimiento exige una nueva exposición pública, por lo que, previo acuerdo municipal, deberá elevarse a la Diputación para su aprobación definitiva.

Tercero.- Se incluirán asimismo en el expediente, además de las modificaciones señaladas sobre la clasificación y calificación en la presente resolución, las derivadas de los aspectos vinculantes de los informes de la Comisión de Ordenación del Territorio del País

Sailekoak, eta Arabako Foru Aldundiko Mendi, Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzukoak eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzukoak.

Laugarren.- Berrikuspen espediente horren behin betiko onarpena gertatzen ez den bitartean, udalerrian aplikatu beharreko hirigintza arautegia Udalaren Planeamenduaren Ordezko Arauetan jasotzen dena izango da, hau da, 1995ko otsailaren 15ean Foru Aldundiak onartutakoa, eta horren aldaketen ondoriozkoa.

Bosgarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea".

Bigarrena.- Azaroaren 14ko 983/2006 Foru Aginduaren bitartez Zuiako Udalak egindako errekerimendua onartu zen, 2006ko urriaren 26ko aparteko batzarrean Udalbatzak hartutakoa. Bertan, udalerriaren Planeamenduaren Ordezko Arauen Berrikusketaren espedientea onartu zen behin betiko, izaera partzialarekin, hau da, udalerriaren lurzoru ez urbanizagarriari dagokion eremuan.

Foru ebazpen hori, abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduan ezarritako baldintzak biltzen zituen arautegiarekin batera (lurzoru ez urbanizagarriari zegokionez), Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2007ko otsailaren 9an (17. zenbakia).

Hirugarrena.- Arabako Foru Aldundian 2007ko maiatzaren 7an sarrera eman zitzaion idazki baten bidez, Zuiako Udalak honakoa eskatu zuen:

"Hirigintza eta Ingurumen Saileko 2006ko abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduaren bidez ezartzen zen bertan behera uztea eteteko eskatzen da, eta espedientea behin betiko onartzeko eskabidea egin; aldi berean, onartzen da ebazpenaren agintze-zatiaren hirugarren atalari dagozkion gainerako aldaketak sartu beharra".

Zuiako Udalak, bere eskabidea arrazoitzeaz gain, honakoak aurkeztu zituen:

1.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailburuordearen idazkia, 2007ko apirilaren 24koa. Bertan, Alto Baias izenekoaren hornidura proiektuaren berri ematen zen.

2.- Udalerrian etxe berriak egiteko eman ziren obren baimenen zerrenda. Baimen horiek 1997tik 2006ra bitartean eman ziren.

3.- Ebroren Konfederazio Hidrografikoak emandako baimena, Arralde eta Pradobaso erreketatik bi hartune berri egiteko. Baias ibaiaren adarrak dira erreka horiek.

4.- Bi hartune berrien kokatze-planoa, bai eta Markinan egin beharreko baltsarena ere.

5.- Zuiako Udalak 2007ko maiatzaren 2an hartutako erabakiaren ziurtagiria. Bertan, abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduak ezartzen zuen bertan behera uztea eteteko eskatzen zen, eta espedientea behin betiko onartzeko eskabidea egiten zen.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduaren lehenengo eta bigarren xedapenetan jasotzen dena kontuan hartuz, bi gai dira aztertu beharrekoak, Zuiako udalerriaren Planeamenduaren Ordezko Arauen berrikusketaren dokumentuaren behin betiko onarpenaren eskabideari erantzuna emateko.

Alde batetik, ea Zuiako Udalak aurkeztutako dokumentazioaren ondorioz ateratzen den berrikusketaren dokumentuan proposatzen den lurralde ereduaren ur-hornidura bermatzeko behar diren konpromisoak badauden.

Bestetik, baltsa berria egiteko prozedura ikusita, ea beharrezkoa den konponbide hori jendaurrean jartzea berriro, 700/2006 Foru Aginduaren bigarren xedapenak ezartzen duen bezala.

Bigarrena.- Aztertu beharreko lehenengo gaiari dagokionez, honakoa hartu behar da kontuan: Planak ezartzen dituen etxebizitza berriak 517 diren arren, ez da aurreikusten horiek denak hiru urte baino lehenago egitea, 1997tik 2006ra bitartean emandako baimenak (398) ikusirik.

Vasco, del Departamento de Obras Públicas y Transportes, y de los Servicios de Montes y Medio Ambiente y Biodiversidad, del Desarrollo Agrario de Diputación, que se han producido durante el proceso de tramitación de la Revisión.

Cuarto.- Mientras no se produzca la aprobación definitiva de este expediente de Revisión, la normativa urbanística de aplicación en el Municipio es la contenida en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal aprobadas definitivamente por Diputación con fecha 15 de febrero de 1995, así como la derivada de sus oportunas Modificaciones.

Quinto.- Publicar la presente resolución en el Boletín oficial del Territorio Histórico de Álava."

Segundo.- En virtud de la Orden Foral nº 983/2006, de 14 de noviembre, fue estimado el requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Zuia, según lo acordado mediante Acuerdo del Pleno en sesión extraordinaria de fecha 26 de octubre de 2006, aprobándose definitivamente el expediente de Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio, con carácter parcial, esto es, en el ámbito del suelo no urbanizable de su término municipal.

Dicha resolución foral, junto a la normativa incorporando las modificaciones impuestas por la Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, respecto del suelo no urbanizable, fue publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 17, de 9 de febrero de 2007.

Tercero.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 7 de mayo de 2007, el Ayuntamiento de Zuia solicita que:

"se alce la suspensión decretada en virtud de la Orden Foral nº 700, de 4 de agosto de 2006, del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, procediéndose a la aprobación definitiva de dicho expediente, sin perjuicio de la necesidad de introducir el resto de modificaciones a que hace referencia el apartado tercero de la parte dispositiva de dicha resolución."

El Ayuntamiento de Zuia, además de fundamentar su pretensión, acompaña a su solicitud:

1.- Escrito de la Viceconsejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, de fecha 24 de abril de 2007, en el que informa del estado del proyecto de abastecimiento del Alto Baias.

2.- Relación de licencias de obras concedidas para la construcción de viviendas nuevas en el municipio, desde el año 1997 hasta el 2006.

3.- Solicitud de autorización a la Confederación Hidrográfica del Ebro para dos nuevas captaciones de agua de los arroyos Arralde y Pradobaso, ambos afluentes del Río Baias.

4.- Plano de localización de las dos nuevas captaciones y de la balsa a construir en Markina.

5.- Certificación del acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Zuia, en sesión del día 2 de mayo de 2007, de solicitar el alzamiento de la suspensión decretada en virtud de la Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto procediéndose a la aprobación definitiva de dicho expediente.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- A tenor del contenido de los dispongos primero y segundo de la Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, son dos las cuestiones que se deben analizar, a fin de dar respuesta a la solicitud de aprobación definitiva del documento de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia.

Por un lado, si de la documentación aportada por el Ayuntamiento de Zuia se deduce la existencia de los compromisos necesarios que hagan posible el suministro de agua que se precisa para el modelo territorial propuesto en el documento de revisión.

Por otro, si a la vista del estado actual del proceso que se sigue para la construcción de la nueva balsa, resulta necesario el sometimiento de la solución proyectada a la información pública urbanística establecida en el dispongo segundo de la Orden Foral nº 700/2006.

Segundo.- En cuanto a la primera de las cuestiones que deben analizarse, hemos de tener en cuenta que si bien el número de nuevas viviendas que propone el Plan es de 517, no es previsible que la construcción de las mismas se efectúe en un plazo inferior a tres años, a tenor del número de licencias concedidas (398) en el periodo comprendido entre 1997 y 2006.

Datu horrek zera adierazten digu: baltsaren obrak bukatzeko eperako (2010aren erdia), etxebizitzen kopurua 150 inguru izan daitekeela. Horri honakoa gehitu behar zaio: berrikusketaren dokumentuan proposatzen den lurralde ereduak aldaketa kualitatiboa suposatzen duela aurrekoarekiko, zeren eta lurzorua okupatzeko eredu estentsibo batetik eredu intentsibora pasatzen baita, eta, horren ondorioz, ur kontsumoa txikiagoa izango da, berdegune pribatu gutxiago egongo delako ureztatzeko.

Aurreko azalpen hori eman ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak onartutako konpromisoak aipatu behar ditugu, Zuiako eta Urkabustaizko ur-hornidurarako azpiegiturak egingo dituela bermatu duelako.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailburuordeak, 2007ko apirilaren 24ko idazkiaren bidez, honakoa adierazten du: 2007ko apirilaren 16an egin zela proiektua idazteko kontratuaren esleipenaren proposamena, eta 2008ko otsailerako esleituta egongo direla obra horiek, zeren eta eginda baitago horretarako aurrekontu erreserba.

Bestalde, Zuiako eta Urkabustaizko udalek Ebroren Konfederazio Hidrografikoari ur baliabide berriak hartzeko behar den baimena eskatu diote; baimen hori urte baten buruan lortzea espero da.

Beraz, deskribatu den egoerak zera erakusten digu: obra 2010aren erdirako bukatuta egoteko behar diren konpromisoak badaudela. Bestalde, gaur egun indarrean dagoen planeamenduarekin, 367 etxebizitza eraiki daitezkeela hartzen badugu kontuan, 2010ean ur-hornidura nahikoa izango dute etxebizitza horiek; beraz, gaur egungo baliabide hidrikoak erabiltzean horrek izango duen eragina ez da izango determinatzailea.

Proposatzen den konponbidea berriro jendaurrean jartzeari dagokionez, argi dago izapide hori proiektuaren erakusketa publikora bideratu behar dela; Eusko Jaurlaritzak behin-behineko onarpena ematen dionean, proiektuaren barnean gauzatu beharko da. Proiektua jendaurrean jarri ondoren, eta ingurumenean izango duen eragina aztertu ondoren, udalerriaren planeamendua egokitu egin beharko da, azpiegitura hidraulikoa bertan txertatzeko; horretarako, beharrezkoa den xedapen aldaketa egingo da. Beraz, proiektua onartu ondoren jarriko da jendaurrean aldaketaren dokumentua, azpiegitura horrek herrian izango duen eragina ezartzeko.

Horren guztiaren ondorioz, honakoa ateratzen da: bertan behera uzteko hartu zen erabakia eteteko nahikoa arrazoi dagoela, eta, beraz, Zuiako udalerriaren Planeamenduaren Ordezko Arauen berrikusketaren dokumentua behin betiko onartzeko, hiri lurzoruari dagokionez, foru aginduan bertan behera uzteko bildu ziren gainerako baldintzekin batera.

Ondorioz, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Zuiako udalerriaren Planeamenduaren Ordezko Arauen berrikusketaren dokumentua behin betiko onartzea, udalerri horretako hiri lurzoruari dagokionez, Hirigintza eta Ingurumen Sailaren abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduak lur horretarako xedapenen agintze-zatiaren hirugarren atalean ezartzen dituen baldintzekin.

Bigarren.- Agiri bateratua egin ondoren, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio, jarritako baldintzak bete direla adieraz dezan, eta arautegia argitaratu dadin.

Hirugarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean,

Dicho dato nos pone de manifiesto que a la fecha previsible de finalización de las obras de construcción de la balsa (mediados de 2010), el número de viviendas que se construirían podría situarse en las 150 unidades. A ello ha de añadirse el hecho de que el modelo territorial propuesto en el documento de revisión supone un cambio cualitativo respecto del anterior, ya que se pasa de un modelo extensivo de ocupación del suelo a otro más intensivo, lo cual se traduce en un menor consumo de agua debido a la existencia de una menor superficie de zonas verdes privadas a regar.

Hecha la anterior consideración, habremos de referirnos a los compromisos adoptados por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco en orden a garantizar la ejecución de la infraestructura proyectada para el suministro de agua a los municipios de Zuia y Urkabustaiz.

En el escrito de la Viceconsejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de fecha 24 de abril de 2007, se señala que el 16 de abril de 2007 se ha realizado la propuesta de adjudicación del contrato de redacción del proyecto constructivo, estando en condiciones de licitar las obras de construcción en febrero del año 2008, habiéndose realizado las reservas presupuestarias necesarias para tal fin.

Por su parte, los Ayuntamientos de Zuia y Urkabustaiz han solicitado de la Confederación Hidrográfica del Ebro la oportuna autorización para la captación de los nuevos recurso hídricos, siendo previsible que en el plazo de un año esté concedida dicha autorización.

El escenario descrito permite considerar que existen los compromisos necesarios para que la obra pueda estar finalizada a mediados del año 2010. Si tenemos en cuenta que con el planeamiento actualmente en vigor es posible la construcción de 367 viviendas, la conclusión que se obtiene es que en el horizonte del año 2010 se estará en condiciones de suministrar agua a las viviendas que se posibilitan con el nuevo planeamiento, por lo que la incidencia de éste en la utilización de los actuales recursos hídricos no resulta determinante.

Por lo que a la necesidad de sometimiento a información pública de la solución proyectada se refiere, es evidente que este trámite ha de ser reconducido a la exposición pública del proyecto que, tras su aprobación inicial por parte del Gobierno Vasco, ha de darse en el marco del propio proyecto. Una vez sometido el mismo a información pública y procedimiento individualizado de impacto ambiental será necesaria la adaptación del planeamiento municipal para la inserción de la infraestructura hidráulica, mediante la oportuna modificación puntual. Será por tanto, una vez aprobado el proyecto, cuando el documento de modificación se someta nuevamente a información pública para determinar la incidencia urbanística que dicha infraestructura pueda tener.

De lo expuesto se concluye que se dan los presupuestos necesarios para que se pueda alzar la suspensión acordada y, en consecuencia aprobar definitivamente el documento de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia en lo referente al suelo urbano, con el resto de condiciones que ya fueron recogidas en la Orden Foral de suspensión.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el documento de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia en lo referente al suelo urbano de dicho municipio, con las condiciones que para esta clase de suelo se establecieron en el apartado tercero de la parte dispositiva de la Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente.

Segundo.- Una vez elaborado el documento refundido se elevará a la Diputación Foral de Álava a fin de dar por cumplidas las condiciones impuestas y proceder a la publicación de la normativa.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o

egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 21a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 21 de mayo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

**3703**

**Hutsen zuzenketa, 3140 zenbakiko iragarkian: 216/2007 Foru Agindua, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen bidez, eskola kirola sustatzeko dirulaguntzen deialdia onartzen duena.**

3140. zenbakiko iragarkian, 2007ko maiatzaren 18ko ALHAOn argitaratutakoan (60. zenbakia), hutsak egin direnez gero, zuzendu egingo dira:

SEIGARREN OINARRIAN, ONDOKOA JARRI BEHARREAN: “Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak eta zazpigarren oinarrian aipatzen diren agiriak 2007ko ekainaren 4tik ekainaren 30era bitartean aurkeztu beharko dira.

HONAKOA ESAN BEHAR DU: “Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak eta zazpigarren oinarrian aipatzen diren agiriak 2007ko ekainaren 4tik uztailaren 30era bitartean aurkeztu beharko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 21a.– Administrazio Kudeaketa Zerbitzuko Burua, EMILIO ORTIZ PALACIOS.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTE

**3703**

**Corrección de errata del anuncio nº 3140 relativo a la Orden Foral 216/2007 que aprueba la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo del Deporte Escolar, a través de Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.**

Advertida errata en el anuncio nº 3140 publicado en el BOTHA núm. 60 de fecha 18 de mayo de 2007, se procede para su subsanación a efectuar la oportuna rectificación:

DONDE DICE EN LA BASE SEXTA.- “Presentación de solicitudes.

1.- El plazo de presentación de solicitudes, junto con la documentación a que hace referencia la base séptima comenzará el día 4 de junio y terminará el día 30 de junio de 2007”.

DEBE DECIR: “Presentación de solicitudes.

1.- El plazo de presentación de solicitudes, junto con la documentación a que hace referencia la base séptima comenzará el día 4 de junio y terminará el día 30 de julio de 2007”.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2007.– El Jefe del Servicio de Gestión Administrativa, EMILIO ORTIZ PALACIOS.

# Iragarkiak

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

**3672**

**Honako zerbitzu honetarako lehiaketa publikoa: “Arabako ARTIUM Arte Garaikidearen Museoko artelanen bilduma kontserbatzea eta zaharberritzea”.**

1.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA: Arabako Foru Aldundia.

Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko Zaharberrikuntza Zerbitzua.

Espedientearen zenbakia: 07/R-5.

2.- KONTRATUAREN HELBURUA: Arabako ARTIUM Arte Garaikidearen Museoko artelanen bilduma kontserbatzeko eta zaharberritzeko zerbitzua eskaintzea.

Gauzatzeko epea: kontratua izenpetzen denetik 2007ko abenduaren 31 arte.

3.- IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA: lehiaketa publikoaren eta prozedura irekiaren bidez.

4.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA. Gehienezko zenbatekoa: 29 euro/lanordu bakoitzeko. BEZa eta gainerako zergak barne.

5.- BERMEAK:

Behin-behinekoa: ez da ordaindu behar.

Behin betikoa: lizitazioaren aurrekontuaren %4.

6.- DOKUMENTAZIOA ETA ARGIBIDEAK ESKURATZEA: Arabako Foru Aldundiaren Kultura Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzua. Probintzia plaza, 5-3.a,. PK: 01001. Gasteiz. (Telefonoa: 945-181882). Edo Zaharberrikuntza Zerbitzua (telefonoa: 945-181818, 5042 luzapena).

7.- KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK:

a) Sailkapena: ez da eskatzen.

b) Bestelako betekizunak: ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa.

# Anuncios

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

**3672**

**Concurso público para la prestación del servicio denominado “Conservación y restauración de obras de la colección del Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM de Álava”.**

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA: Diputación Foral de Álava.

Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Restauraciones del Departamento de Cultura, Juventud y Deportes.

Número de Expediente: 07/R-5.

2.- OBJETO DEL CONTRATO: Prestación del servicio de conservación y restauración de obras de la colección del Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM de Álava.

Plazo de ejecución: Desde la formalización del contrato hasta el 31 de diciembre de 2007.

3.- TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN: Por concurso público, procedimiento abierto.

4.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN: Cantidad máxima de 29 euros precio/hora de trabajo, IVA y demás impuestos incluidos.

5.- GARANTÍAS:

Provisional: Exenta.

Definitiva: 4 % del presupuesto de licitación.

6.- OBTENCIÓN DE DOCUMENTACIÓN E INFORMACIÓN: Servicio de Secretaría Técnica de Cultura de la Excma. Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, número 5-3º, C.P. 01001 Vitoria-Gasteiz (tfno. 945-181882) y en el Servicio de Restauraciones (tfno. 945-181818, extensión 5042).

7.- REQUISITOS ESPECÍFICOS DEL CONTRATISTA:

a) Clasificación: no se requiere.

b) Otros requisitos: solvencia económica, financiera y técnica.